

Alde batetik, lortuko ditugun bezeroak mantetzeko produktua berritzeko asmoa dugu. Hau da, disenu berriak egiten edo "aktualizazioak" sortzen.

Beste alde batetik, bezero gehiago lor ditzagun, adin desberdinetara heldu daitezken ekimenak egingo ditugu. Adineko pertsonentzat, irratiarekin hitz egingo dugu gure proiektuari buruzko iragarkiak jartzeko, horrela, adineko pertsonak ere kontzientziatu ahal izateko, askotan birziklatzea kostatzen baitzaie. Gazteengan eragina izan dezan aldiz, instagram kontu bat sortuko dugu, gure asmoa eta proiektuaren irudiak jartzeko. Era berean, iragarki batzuk jarriko ditugu, modu sinplean azaltzeko proiektua zertan datzan eta zertarako balio duen.

Azkenik, gure produktua bezero berriei heltzeko diseinu berriak ateratzeaz gain, esparru desberdinetarako disenuak ezberdinak ateratzea pentsatu dugu. Adibidez, ideia arrakasta badu, etxerako diseinu bat ateratzea pentsatu dugu, ekonomikoagoa dena eta askoz sinpleagoa baina oraindik birziklapena sustatzen duena. Horrela, gure bezero kantitatea handitu egingo da eta jendea birziklatzen jarraituko du.